

## UDAL BATZARRAREN BILERA AGIRIA

### BILERAREN EZAUGARRIAK

**Bilera Zkia:** 08/2007  
**Data:** 2007ko azaroaren 22a  
**Eguna:** osteguna  
**Ordua:** 19:30etan  
**Lekua:** Udalaren Bilera Aretoan

**Bilera mota:** Bilera berezia.

**Deialdia:** 2007ko azaroaren 22an

### PARTE HARTZAILEAK

#### LEHENDAKARIA:

Ignacio Javier Garmendia Arruabarrena

#### ZINEGOTZIAK

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

Jose Ignacio Irastorza Garmendia

Maixa Olano Gorostidi

#### IDAZKARIA:

Iñaki Sainz Paredes

#### AZALDU EZ DIRENAK:

Mikel Garmendia Sukia

### **Aztergaien zerrenda:**

- 1.- Ostatu eta Etxeberri eraikuntzen proiektuak onesteko proposamena.-
- 2.- Zerga lokalak arautzen dituen ordenantzak aldatzeko proposamena.-
- 3.- 2006 ekitaldiko kontu orokorrak onesteko proposamena.-
- 4.- Gaintzan euskara biziberritzeko plan nagusia.-
- 5.- Gipuzkoa Donostia Kutzarekin euskararen erabilera sustatzeko landidetza hitzarmen proposamena.-
- 6.- Batzuk.-

Alkatetzak aurrez hartutako erabakiari jarraituz, goian laburbiltzen dena, segidan azaltzen diren zinegotziek, aipatu den leku eta datan batzarraraten dira, bere izenaren alboan agertu diren ordua azaltzen delarik.

### **1. PUNTUA.- OSTATU ETA ETXEBERRI ERAIKUNTZEN PROIEKTUAK ONESTEKO PROPOSAMENA.-**

Egitasmo honen gain, hainbat gauza lotzeke daudenez eta bideragarritasun ekonomikoa eta finantzaketa nola izan behar den argitzeke dagoenez, luze eztabaidatu ondoren, gaia mahai gainenean uztea erabaki dute zinegotziek.

### **2.- ZERGA LOKALAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.-**

Udal ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena eztabaidan jartzen da.

Aipatu proposamenak ondorengo aldaketak onestea du helburua:

#### **→ ZERGAK:**

- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga: Egungo tarifak 2006ko urritik 2007ko urrira K.P.I.n arabera igotzea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga ezartzea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo tarifak eta dagokion ordenantza arautzailea onartuz:

- 1.- Eraikuntza berriak (babes ofizialeko etxebizitzak salbu) Aurrekontuaren %3,2.
- 2.- Babes ofizialeko etxebizitza berriak: Aurrekontuaren %1,6.

➔ **TASAK: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK**

- Ur hornidura: Egungo tarifak 2006ko urritik 2007ko urriko K.P.I.n arabera igotzea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- Zaborrak bildu eta iraitzeko zerbitzua: Egungo tarifak 2006ko urritik 2007ko urriko K.P.I.n arabera igotzea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Aurreko proposamena, aho batez, alde diktaminatu zuen udal honetako Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran.

Hori horrela izanik, gaia eztabaidatu ondoren, udal batzarrak, aho batez, erabaki du onestea gaiari buruzko proposamena, bilerako agiriaren eranskinean ezartzen direlarik aldatu eta ezarritako tarifak.

**A) ALDAKETAK**

**1) ZERGA**

**TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**

**TARIFAK ETA KOEFIZIENTEA**

Ibilgailuaren potentzia eta mota

Tarifak

A) Ibilgailuak:

9 zaldi fiskaletik beherakoak	21,10
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	42,25
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	70,45
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	98,60
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	126,75
20 zaldi fiskaletik gorakoak	154,90

B) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak	97,60
21etik 50 plazatara bitartekoak	139,00
50 plaza baino gehiagokoak	173,80

C) Kamioiak:

1.000 kg.tik beherako karga erabilgarria dutenak	49,55
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	97,60
2.999tik 9.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	139,00
9.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	173,80

D) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	20,70
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	32,55
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	97,60

E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek arrastran eramandako atoi eta erdi atoiak:

1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	20,70
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	32,55
2.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	97,60

F) Bestelako ibilgailuak:

Ziklomotoreak	5,20
125 cc.ra bitarteko motozikletak	5,20
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	8,90
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	17,75
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	35,50
1.000 cc.tik gorako motozikletak	71,00

## 2) TASAK

### ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK

#### 2.1) Ur hornidura

<u>Kontsumoak</u>	<u>Tarifa</u>
Kontsumitutako m <sup>3</sup> bakoitzeko	0,50.-€

Tarifa aplikatzeko arauak :

A. Kontsumoa egon edo ez egon hiruhilero 5 m<sup>3</sup>tako gutxienekoa ordainduko da.

B. Prezioa hiru hilero kobratuko da ordainagiri bidez.

Ura hartzeko baimena	42,65.-€
----------------------	----------

#### 2.2) Zaborrak bildu eta iraitzeko zerbitzua

	<u>Tarifa</u>	<i>Euroak / Seihilekoa</i>
Etxebizitzak, hutsak barne	21,10	
Tabernak, Jatetxeak, elkarteak, aterpetxeak etabar.	42,20	

Tarifa aplikatzeko arauak :

A. Prezioa seihilero kobratuko da ordainagiri bidez.

### **3.- 2006 EKITALDIKO KONTU OROKORRAK ONESTEKO PROPOSAMENA.-**

Ikusirik 2006ko ekitaldiko udal aurrekontuaren kontu orokorren espediente orokorra.

Izanik aipatu espedientea indarrean dagoen legediaren arabera izapidatua izan dela.

Udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onestea 2006ko ekitaldiko udal aurrekontuaren kontu orokorren espedientea eta espedientearen kopia Euskadiko Herri Kontuen Epaitegiari igortzea.

### **4.- GAINZAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA.-**

UEMAk prestatutako "Gaintzan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia" ren berri ematen da.

Espedientean jasota dago Eusko Jaurlaritzak Plan Nagusi honen gain idatzitzako txostena.

Eta dokumentazioa ikusita, bildutakoek ahobatez erabaki dute:

Onestea "Gaintzan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia" dokumentua aurkeztua izan den eraberean onartzea eta bertan jasotako plangintza abian jartzea.

Bestetik, euskara ikasteko xedearekin dirulaguntzak banatzeko kontusaila urteko aurrekontuan sartzea erabaki dute, 800,00 €ko zenbatekoarekin. Dirua banatzerakoan lehentasuna izango dute euskaraz ez jakin eta saiatu diren herritarrak eta kreditua egonez gero, EGA eta holako tituluak gainditzeko egiaztatutako gastuak arintzen erabiliko da gerakina.

### **5.- GIPUZKOA DONOSTIA KUTXAREKIN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO LANDIDETZA HITZARMEN PROPOSAMENA.-**

EUDEL eta Gipuzkoa Donostia Kutxak euskararen erabilera sustatzeko sinatutako lankidetzak hitzarmenaren berri ematen da.

Interesa duten Udalek hitzarmen marko honekiko atxikimendua onartu beharko dute.

Hitzarmenaren xedea da, bi erakunden arteko harremanetan, ahozkoeta zein idatzikoetan, euskaraen erabilera eta aurkarazko produkzioa bultzatzea.

Eta dokumentazioa ikusita, bildutakoek ahobatez erabaki dute:

Atxikitzea EUDEL eta Gipuzkoa Donostia Kutxak sinatutako lankidetzaz hitzarmenera eta erabaki honen berri EUDELi zein Gipuzkoa Donostia Kutxari ematea.

## **6.- BATZUK.-**

Atal honetan jarraiko puntuak landu ziren:

### **6.1. Goekiko Administrazio Kontseiluaren osaketa 2007/2011 legealdirako.**

Udalbatzarrara jakinaren gainean geratzen da.

### **6.2. Txinparta Elektrizitateak egindakoa 930,65 €ko aurrekontua. Kanpo Santu ondoan farola jartzeko.**

Aurrekontua onartzea eta lanak egitea adosten dute zinegotziek.

### **6.3. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak igorritako 2.186,65 €tako eta 2.525 €tako fakturen berri ematea, Ostatu-Etxeberri etxeen eraisketa eta hiritartze lanen proiektuengatik.**

Ahal denean ordaindu eta jasotzea adosten da.

### **6.4. Telefonikaren faktura, Ostatu eta Etxeberri etxeak botatzerakoan, linearen aldaketa lanengatik ordaindu beharreko kopuruaren erdia: 712,50 €.**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta ahal denean ordaintzea adosten dute.

### **6.5. Foru Aldundiak GI-3372 errepideko 3,300 eta 3,400 arteko foru errepidea Gaintzako Udalaren jabetzara eskualdatzeko Diputatuen Kontseiluak 2007ko azaroaren 13an hartutako erabakiaren berri ematen da.**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta adierazitako errepide zatia bere jabetzarako jasotzen du, Udalaren ondasunen inbentarioan jaso bedi aginduz.

### **6.6. Aurrekoaren ondorioz, Bide Azpiegiturarako Departamenduak GI-3372 errepide ondoan obrak egiteko baimenaren berri ematen da.**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

### **6.7. Ignacio Sukiaren idatziaren berri ematen da, bertan Amiama eta Amiama-Zahar baserrietara doan bidearen gain, bi etxeen jabeekideen artean sortutako desadostasunen berri ematen da, eta aurrerantzean, bide honekin zerikusia duten eskaera zein jardueren berri ematea eskatzen du, ezen interesa duen alderi kaltetua baita berarekiko.**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, dena den, ondorioztatu zen bezala, bide hori edo zorbide hori izaera partikularrekoa izanik, Udalak beraren gain ez du eskumenik eta herritarren arteko liskarretan ezin du baten edo besten aldetan parte hartu.

### **6.8. Ostatu-Etxeberri hiritartze lanen gaineko fakturaren onarpena: Zizurkil Eraikuntza eta Zulaketa lanak SLk, Ostatu-Etxeberri hiritartze lanek eragindako gastuen berri ematen da,**

**guztira egindako lanen munta 07/375 faktura zenbakiak dionaren arabera, 61.295,62 € izan da, hauetatik, 2005eko martxoaren 3an egindako bileran, udalbatzarrak 17.437,06 € iada ordaintzea onartuak zituen, beraz, orain, gerakina den 43.861,56 €ak onartzea falta da. Espedientean agerian geratu da, eta teknikariak hala egiaztatu du, fakturan jasotako lan guztiak eginak daudela, eta berauek ordaintzeko Udalak EREINGo laguntza jasoko duela.**

Gauzak honela, ahobatez ordainketa egitea, eta berehala egitea, onartu, baimendu eta agintzen du Udalbatzak eta EREINera horren berri eman dadila, agindutako 67.613,85 €ko laguntza lehen baino lehen jaso dadin.

Eta bileraren helburua beteta, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, arratsaldeko bederatzia puntuan zirenean.

O.e.  
Alkateak

Idazkariak

Stua. Ignacio Javier Garmendia Arruabarrena

Stua. Iñaki Sainz Paredes